


Lurrean bezala, itsasoan ere

EEBB, Errusia, Norvegia eta Ukraina elkarlanean hasi dira Ozeano Bareko "kosmodromo" berria martxan jartzeko. Eta berria diogu orain arte ez delako itsasoan sateliteak jaurtitzeko edo koheteak lurrutzekeo pistarik jarri, guk dakigularik behintzat. Zehatzago, lau lurraldeotako

urrun ipintzeak ere abantaila asko ekarriko ditu, besteak beste hiriguneetako kosmodromoek sortzen dituzten poluzio-arazoak ez baitira hor gertatuko. Pista berria lanean noiz hasiko den esan ez badute ere, urtea amaitu aurretik lanen lehen fasea bukatzea espero dela iragarri du EEBBetako Boeing konpainiak, kosmodromo berriaren hustiapenez arduratuko den enpresak.

den bi galaxien arteko talka. **Hubble** zundak jaso duen irudi horretan talkak sorrarazi dituen uhinak ageri dira. Astronomoek uste dutenez, uhinetako gas-kontzentrazioa izar berriak sortu ahal izateko eman ohi den lehen urratsa da. Arretaz segitu beharko dugu prozesuaren bilakaera. Agian hurrengo alean izar berri bat sortu dela esan ahal izango dizuegu.



Irudian ikusten den maketari dagokion kohetea, koheteen babesgarri gisa erabiltzen diren materialen portaera aztertzekeo erabiliko da.

Uhinak izar berriak sortzen dituzte

Edozein momentutan gerta daitekeela esatea asko bada ere, astronomoek arruntzat jotzen dituzte unibertsoan gertatzen diren talkak. Irudian dakusaguna fenomeno "arrunt" horietako bat da: guregandik 500 milioi argi-urtera gertatu


IDA asteroidearen bitxikeriak

Galileo zundak bidalitako informazioa uste baino emankorragoa suertatzen ari da. New Yorkeko Cornell Unibertsitateko ikerlariak, esaterako, Galileok emandako datuetan oinarritu dira Ida asteroideari buruz orain arte genekiena osatzeko. Ikerketa horri esker, esaterako, Idaren inguruan 1,6 kilometroko diametro-dun satelitea dabilela jakin ahal izan dugu. New Yorkeko ikerlarien iritziz, Dactyl izeneko satelitea Koronis asteroide-gerrikoaren jatorri berekoa omen da. Ida asteroideak zergatik erakarri eta bere inguruan jira-bira jarri ote duen argitzeko, berriz, ikerlariak Koronis asteroide-gerrikoan gertatu ei zen leherketa bortitza darabilte hipotesi gisa.

Lehen urratsak ematen

Goiko irudian azaltzen dena ez da egiazko kohetea, Europako Elkartek 1996an espaziora bidaliko duen kohetearen maketa baizik. Bourget hirian burutu berri den Aeronautikako Nazioarteko Azokan aurkeztu zuten maketa hori eta jendaurrean azaldu zuten zein lan egin beharko duen Ard izeneko koheteak datoren urteko udaberrian. Izan ere, orduan jaurtiko dute espaziora kohetearen babesgarri gisa erabiltzen diren materialen portaera aztertzekeo. Zehatzago, kohetea atmosferan sartzean sortzen diren erreakzioak aztertzea eta horiei aurea hartzea izango da Ard kohetearen bidaiatik ikerlariak aterako duten irakaspena.

Astronomoek arruntzat jotzen dituzte unibertsoan gertatzen diren talkak.



Besteak beste, sateliteak ohi baino orbita altuagora jaurtitzeko modua eskainiko du kosmodromo berriak.

aeronautika-konpainia bana petroleo-plataforma zahar bati erabilpen berri bat emateko elkar-tu dira eta agidanez, horrek aukera ezin hobea eskainiko die teknologia berriak bertan probatzeko. Besteak beste, sateliteak ohi baino orbita altuagora jaurtitzeko modua eskainiko du kosmodromo berriak, horretarako Ukrainiar garatutako misil-teknologia erabiliko dute. Horrez gain, lehorretik